



**Duela gutxira arte herri eta auzo gehienetan egunero entzun ohi ziren kanpai hotsak, zela erlijio kontuen harira, zela auzotarrei zegozkien kontu mundutarragoen kariaz. Baina igaro dira ezkila<sup>1</sup> hotsak nonahi eta noiznahi entzuten ziren garaiak, berriak helarazteko bideak aldatu diren heinean. Kanpai-joleen patua ere gailu elektronikoaren hedapenak markatu du. Aretxabaletako Areantza auzoan, ordea, antzinako ohitura berreskuratzeko lanean dabilta, kanpai-jole eskola osatu eta ikasmateriala prestatuta. EÑAUT MITXELENA. Argazkiak: AMAIA ZABALO.**

Kanpai hotsak izan dira urte askotan tokian tokiko auzokideei inguruan gertatzen zenaren berri emateko modu nagusia: auzokideak biltezeko, heriotzak jakinarazteko, suteez ohartzeko... Erljio kontuetan ere kanpaiak izan dira berriemaile denbora luzez: mezatara deitzeko, errogatibak egiteko, errezo bereziak gogorazteko... Horrenbestez, Euskal Herriko herri eta auzo gehienetan, ez da falta izan kanpairik, ezta kanpaia jotzeaz arduratzen zenik ere. Halaxe gertatu izan da Aretxabaletako Areantza auzoan ere. Auzoko sendi batek izaten zuen kanpaiak jotzeko **ardura**<sup>2</sup>, eta horren ordainetan auzoko etxe bakoitzak urtean gari kopuru jakin bat ematen zion. "*Honen etxekoa izan dira betidanik auzo honetan kanpai-joleak*", azaldu digu Areantzako Julen Abasolok Gorka Madinabeitia auzotarra seinalatuz. Julen Abasolo bera izan da ekimenaren bultzatzailea, Gorkaren laguntzarekin. Gorkaren ai-

tak eta osabek jo dute Areantzako kanpaia urtetan, baina gainontzeko auzoetan bezala galtzen joan da ohitura. "*Bazirudien jada eten egingo zela*", dio Julenek. Hala, tradizioa jaso eta berreskuratzea erabaki zuten. 2001ean ikus-entzunezko dokumentua burutu zuten, eta bertan jaso Areantzako kanpaien **hizketa**<sup>3</sup>. Orotara, 15 **joaldi**<sup>4</sup> ezberdin bildu zituzten.

Haatik, tradizioa berreskuratzeko asmoa ez zen horretan gelditu, eta kanpaiak jotzen ikasteko moduren bat bilatzeari ekin zioten. "*Kase-*

*te batean grabazioak egiten hasi ginen, eta joaldiak murraraztekin eta paperean idazten. Baina iritsi zen puntu bat non ezinean genbiltzan*", zehaztu digu Julenek. Orduan, Arteman komunikazio enpresarekin harremanetan jarri eta "*haiek borobildu zuten ideia guztiz*". Emaitza, kanpaiak jotzen ikasteko material didaktikoa izan da: DVD formatuan datorren partitura eta grafiko sorta, joaldiak erakusten dituen bideoa eta guzti. Oihan Vega musikari eta kazetariak **apailatu**<sup>5</sup> du materiala.

## Zortzi ikasle

Solfeo jakin gabe ere kanpaiak jotzen ikasteko materiala prestatu du Oihan Vegak. Ohiko partiturez gain, 15 doinuak grafikoetan ere paratu ditu zeinuak erabilita. Grafikoetan, nota-irudi bakoitzak bere zeinu baliokidea du. "*Gutako inork solfeorik ikasi ez duenez, horrelako zerbait*

**1. Ezkila:** kanpai.

**2. Ardura:** erantzukizun.

**3. Hizketa:** mintzo.

**4. Joaldi:** 1. *toque (es), frappe (fr)*; 2. *kontzertu, musika emanaldi*.


**5. Apaila(tu):** presta(tu).





Julen Abasolo eta bere seme Beñat, kanpandorreen praktikak egiten.

behar genuen, koloretako zeinuak-eta, kanpaiak jotzen ikasteko", argitu digu Julenek. Grafikoek joaldi guztiak markatzen dituzte, eskuinteko kanpaien eman beharreko kolpeak eta ezkerreko eman beharrekoak, baita denborak ere. Grafikoak, gainera, joaldien grabazioekin batera agertzen dira, joaldiak xehetasunez aztertu ahal izateko. "Orain arte zelan ikasi ikasten ibili gara", dio Julenek, ikasmaterialari esker kanpai jotzeko teknika "destripatu" dutela gehituz.



Grafikoak eta irudiak uztartzen ditu DVD-ak.

Irailean aurkeztu zuten ikasmateriala, auzoko jaietan. Behin materiala eskuetan, Areantzako kanpai eskolan zortzi ikasle hasi ziren burubelari lanean. Gorka, Julen, honen bederatziru urteko seme Beñat eta beste bost lagun, denak ere inguruko auzoetakoak. "Kanpandorre ezberdinetako ordezkari gisa jendea bilatuta, nolabaiteko zirkuitua osatzeko aukera ikusten genuen, urtean zehar auzo gehiagotan jotzeko", dio Jule-

nek. Hala, eta eskolek euren fruitua ematen badute, Aretxabaletako auzo guztietan joaldiak, "errondaxoak", egiteko asmoa dute. "Hilero, nik uste baietz", Julenek. "Eta jaiak direnean auzo guztietara joan daiteke jotzera. Baita meza dagoen auzoetan -auzoetako mezak asteburuetan txandakatu egiten dituzte-, eta egun berezietan ere", Gorkak albotik. Egund, Areantzako auzoko jaietan soilik jotzen dituzte kanpaiak.

Ikasleak astelehenetan biltzen dira elizari atxikita dagoen **erretore-etxe**<sup>1</sup> zenaren gela batean, eskola teorikoak lantzeko. DVDko irudiak pantaila batean jarri, eta hortxe ibiltzen dira erritmoak aztertu eta errepasatzen. Baina praktikarekin hasten dira komeriak. Gorkaren hitzetan, "kanpandorrera ez gara igotzen gauzak apur bat garbi eduki arte. Salto handia dago. Hemen, mahaietan, ikastea **samurra**<sup>2</sup> da, eta han ez. Gainera, **kanpai-mihiak**<sup>3</sup> duen pisuarekin, joaldietako azkartasunari eustea eta kolpeak ondo sartzea zaila da. Lehenengo egunean penagarria izan zen... Orain ikusten dugu hobetzen ari garela".

Mahaitik kanpandorrerako jauzia samurtzeko edo, dena dela, tarteko irtenbidea topatu dute ikasleek. Gorkak, **galdaragile**<sup>4</sup> izaki, kanpaien simulagailu bat jarri du eliza atariko **arkupean**<sup>5</sup>. Kanpaien neurri berberak ditu simulagailuak, baina ezkila-mihien ordezkari arinagoak dira. Gorkak dioskunez, arinagoak izanik "**eskumuturrarekin**<sup>6</sup> jo daiteke, baina kanpandorrean ez. Hemen eskumuturra erabiltza abiadura lortzea samurra da, baina kanpan-

## Orotariko joaldiak

Ikasmaterialean jaso dituzten hamabost joaldietako bakoitzak esanahi zehatz bat du. Asko, kanpai bakararekin jotzen dira, handiarekin edo txikiarekin. Kanpai handiarekin jotzen dira Arimen eguneko **egunsentian**<sup>8</sup> jotzen zen Argi Kanpaia; auzokoak elizpera erakartzeko balio zuen Auzo Kanpaia; Ave Mariakoa eta Angelusa (azken hau entzutean, eguerdian, txapela erantzi, egiten ari ziren lana utzi eta Angelusa errezatzen zuten auzotarrek); elizkizuna hasi baino ordu erdi lehenago jotzen zen Kanpai Luzea; elizkizunari hasiera emateko Hirukoa; eta hodeiak zetozela ikusten zutenean hauen kalterik ez jasotzeko jotzen zuten Oreiarena. Kanpai txikiarekin gutxiago jotzen dira: suteran bat zenean auzotarrei deitzeko baliatzen zen Su Kanpaia; norbait **hiltze**<sup>9</sup> zenean jotzen zizuten Agoniakoak; eta umeren bat hiltzen zenean entzuten zen Aingeru Kanpaia. Letxuga Kanpaiak; Elizakoak (gaixoren batek okerrera eginez gero, apaizari deitzen ziztzaion **elizakoak**<sup>10</sup> eman ziezakzion); Giza-kumeen Hil Kanpaiak; Emakumeen Hil Kanpaiak; Errogatibak; eta joaldirik handienak ziren Errepikak, jai bezperan eta jai egunean jotzen zirenak; denak kanpai biek jotzen dira. Tokian tokiko joaldiak ezberdinak izan badaitezke ere, eskualdean joaldiak berberak edo bertsuak direla aipatu digute Julenek eta Gorkak.



Kanpai txikia.



## Kanpai geldiak


Areantzako Andre Mariaren elizak bi kanpai ditu. Kanpai geldiak dira. Horrenbestez, ez-kila-mihiak esku banatan hartuta jo behar dira kanpandorrean bertan. Dena dela, eskuinekoa elizara doan soka baten bitartez ere jo daiteke. Zaharrak dira bi ezkilak. Eskuinekoa, "kanpai handia", 1650ekoa da, kanpaiaren bertan grabaturik agertzen denez. Ezkerrekoan, "kanpai txikia" edo "hilkanaia" deitzen diotenean, ez da datarik ageri, baina "ehun bat urte zaharragoa omen da". Ezkerreko kanpaia txikiagoa da, eta soinu biziagoa dauka. Hauxe da bietatik deigarrien suertatzen dena. Bestelako kanpairik ez du elizak; ez erloju kanpairik, ez **bueltakanpairik**<sup>1</sup> ere.

*dorrean tira egin behar duzu, eskumuturrak ia ez du lanik egiten.* Julenek eliza atariko gailuaren abantaila bat nabarmendu digu: "Simulagailuak du ona zaratarik ez duela egiten. Bestela, dabilen haizearen arabera, kanpaiak Aretxabaleta guztian entzuten dira".

### Kanpandorreko komeriak

Gorka, Julen eta Beñatekin igo gara kanpandorrera. Txandaka, jo eta ke aritu dira, ikasitakoa hobetu nahian. Jaso eta ikasi dituzten 15 joaldietatik asko nahiko errazak dira, kanpai bakarrekin jotzen direnak. "Errazena, adibidez, Hirukoa da". Elizkizunari hasiera emateko kanpaia da Hirukoa, eta kanpai handiarekin jotzen da. "Hil Kanpaiaren hildakoren baten berri emateko erabiltzen zen- adibidez bi kanpaiak sartzen dira; baina bi kanpaiekin jotzen den sinpleena da: oso geldoa, oso solemnea,..."; kontatu digu Julenek. Zailenak, eta beraz buruko min gehien sortzen dizkietenak, Errepikak dira. Jai bezperan eta jai egunetan jotzen ziren, eta kanpai joleari bere trebetasuna erakusteko aukera ematen zioten. Gorkak argitu digunez, "Hil Kanpaiaren kasuan, adibidez, ondo zehaztuta dago nola jo behar den, nahiz eta arau idatzirik egon ez. Jotzeko modu bakarra dago, eta holaxe jo behar da. Baina Errepiketean ez da hori gertatzen, askatasun dezente ematen du. Bakoitzak bere trebeziaren arabera kolpe gehiago edo gutxiago sartuko ditu, edo azkarrago jo...". Hots, joldi pertsonalagoak dira Errepikak.

Material didaktikoari esker Errepikaren oinarriko kolpeak ondo bereizi dituzte, nahiz eta inprobisazioari tartea kendu. "Oinarriko kolpe horiek ikasiz gero, bakoitzak bere estilo pertsonala garatuko duela uste dugu. Ahal den neurri-raino ailegatuko gara", dio Gorkak. Saiatu saiatzen dira, eta pixkanaka hobetzen ari dira. Beñatek berak ere aitortu digunez, "hasieran zaila zen, orain errazagoa". Halere, oraindik ere badute nahikoa lan egiteke. Gorkak kanpandorrean azaldu digunez, "arazo gehien bi kan-



Beñat, Gorkak eginiko simulagailuan jo ta su.

1. **Erretore:** parroko.
2. **Samur:** erraz.
3. **Kanpai-mihi:** badajo (es), battant (de cloche).
4. **Galdaragile:** calderero, -a (es), chaudronnier, -euse (fr).
5. **Arkupe:** pórtico (es), portique (fr).
6. **Eskumutur:** muñeca (es), poignet (fr).
7. **Aholku:** gomendio, kontseilu.
8. **Egusentzi:** goizargi, goizalde.
9. **Hiltze:** hil zorian.
10. **Elizakoak:** últimos sacramentos (es), derniers sacrements (fr).
11. **Buelta-kanpai:** ardatz baten inguruan buelta osoa emanez jotzen den kanpaia.

paien arteko koordinazioak ematen dizkigu. Orain kolpe guztiak sartzeko ahaleginean gabil-tza; hau da, kolpe guztiak bere lekuan. Hori lortu eta gero, kolpe gogorrek moteletatik bereizten hasiko gara. Baina asko falta zaigu. Falta zaigu Errepikaren doinu hori. Baina etorriko da!" Entsegua amaitzean dela, Gorkaren aita, Felix, joaldiak entzunda kanpandorrera igo da. Animuak eman ohi dizkie, eta **aholkuak**<sup>7</sup> ere. Bide onean ikusten ditu ikasleak, baina etengabeko lanaren garrantzia azpimarratu du: "Iribarrek esaten zuen partida guztietan zer edo zer ikasten zela, eta hemen ere berdina da. Orain ikasi eta kito, ez; beti jardun behar da ikasten".